

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# AITZINATU PROGRAMA

Irakaskuntzarako  
materialen kalitate  
linguistikoa sustatzeko  
hizkuntza-prestakuntzarako  
programa

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



# **AITZINATU PROGRAMA**

**Irakaskuntzarako materialen  
kalitate linguistikoa sustatzeko  
hizkuntza-prestakuntzarako programa**

**Eragile aktiboa**

**C2+ maila**

**Hizkuntzen ikaskuntzarako,  
irakaskuntzarako eta ebaluaziorako Europako  
Erreferentzia Markoaren arabera**

Euskara Zerbitzua

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren alorreko Errektoreordetza

UPV/EHU



# 1 Sarrera

Hizkuntzaren kalitatea funtsezko aldagaia da irakaskuntzaren kalitatean; horregatik, ezinbestean kontuan hartu beharreko langaia da irakasleen etengabeko prestakuntza programetan. Are gehiago gurea bezalako gizartean; izan ere, oso egoera desberdinean dauden bi hizkuntza ofizial ditugu eta, horiekin batera, beste hizkuntza batzuk ditugu elkarbizitzan.

Euskal hiztunen komunitatea heterogeneoa da, eta zenbait esparrutan oraindik ere hutsuneak ageri dira, euskarari dagokionez, irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako baliabideetan: ikasmaterialak, kontsulta tresnak, argitalpenak...

Unibertsitateetan eta, oro har, hezkuntza erakunde eleaniztunetan aldagai horrek arreta berezia eskatzen du. Irakasleen, ikertzaileen eta ikasleen hizkuntza-profil heterogeneoa dugu horren isla: Batetik, euskaraz gaitasun-maila jaso duten irakasleak daude; bestetik, maila apalago batean eroso moldatzen direnak ere baditugu; eta azkenik, zenbait irakasle elebidunek zailtasun handiagoak izan ditzakete euskaraz lan egiteko.

Behar horri erantzuteko, UPV/EHUK hainbat programa eskaintzen ditu euskarazko irakaskuntzaren bikaintasuna sustatzeko asmoz. Besteak beste, eskuorri honetan aipagai dugun AITZINATU programa, erabiltzaile adituentzat (C2 maila) 2017an martxan jarri zena.

## 2 Xedea

|                     |   |
|---------------------|---|
| <b>Helburuak</b>    | <ul style="list-style-type: none"><li>• Irakaskuntza- zein ikerketa-jarduneko materialak (apunteak, diapositibak, irakaskuntza-gidak, artikulua, eskuliburuak, OCW ikastaroak...) zein ikus-entzunezko baliabideak (webguneak, bideo didaktikoak...) sortzeko oinarritzko irizpide lingüistikoak ezagutzea</li><li>• Terminologia eta lexiko espezializatua ezagutu eta era egokian erabiltzea</li><li>• Testuen koherentzia eta kohesioa zaintzea</li><li>• Hizkera argiaren oinarriak ezagutu eta erabiltzea</li><li>• Estilo zainduaren oinarriak ezagutu eta erabiltzea</li></ul> |
| <b>Prozesua</b>     | <ul style="list-style-type: none"><li>• Beharren diagnostikoa eta ibilbidearen planifikazioa</li><li>• Aurrez aurreko 5 prestakuntza-mintegi</li><li>• Banakako 5 tutoretza online, partaide bakoitzarekin</li><li>• Zalantzak argitzeko online zerbitzua</li><li>• Itxiera saioa eta programaren amaierako ebaluazioa</li></ul>  |
| <b>Konpromisoa</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• Proiektu bat garatuko da, irakaskuntzaren kalitatea hobetzera bideratua: irakaskuntzarako dokumentazioa eta euskarria sortzea, irakaskuntzarako argitalpenak sortzea, ikus-entzunezko baliabideak sortzea, e.a.</li></ul>   |
| <b>Akreditazioa</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskara Zerbitzuak emandako ziurtagiria, UPV/EHUko deialdietan ezagutza izango duena</li></ul>  |

### 3 Ezaugarriak

|                    |   |
|--------------------|---|
| <b>Dedikazioa</b>  | <ul style="list-style-type: none"><li>• 10 ordu presentzial (mintegiak) + 5 ordu online + proiektua</li><li>• 4-5 laguneko taldeak, ahal denean, fakultate edo arlo berekoak</li><li>• Aurrez aurreko 2 orduko 5 saio (10 ordu)</li><li>• 5 tutoretza indibidual online (5 ordu)</li><li>• Zalantzak argitzeko eta kontsultak egiteko etengabeko onlineko zerbitzua</li></ul> |
| <b>Iraupena</b>    | <ul style="list-style-type: none"><li>• 4-7 hilabete (taldeak adostutako egutegiaren arabera)</li></ul>   |
| <b>Arduradunak</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• EMUN Hizkuntza Zerbitzuak eta UPV/EHUren Euskara Zerbitzua.</li></ul>   |

#### PROGRAMAREN OINARRIAK ETA METODOLOGIA

Funtsean hiru oinarri edo erreferente teoriko nagusitan oinarritzen da AITZINATU programa ezagutzaren markoa osatzeko orduan.

1. **Sánchez Carrrión, Txepetx**, soziolinguistikaren alorreko adituak hizkuntza jabe-kuntzan hizkuntzaren ezagutzak, erabilerak eta motibazioak duten eraginari eta horien arteko elkarreraginari buruz aldarrikatutako eredutik ondorioztatutako printzipioak.
2. **Stephen Krash psikolinguista** ikaskuntza-prozesu kontzienteei eta inkontzienteei buruz eta horien arteko elkarreraginei buruz garatutako teoriatik ondorioztatu diren printzipioak.
3. **Uri Ruiz Bikandi** hizkuntzen didaktikan adituak ulermen- eta ekoizpen-jardueren arteko harreman eta elkarreragin konplexuari buruz egindako ekarpenak.

Printzipio horiek aintzat harturik, metodologia aktibo eta kooperatiboa proposatzen du AITZINATU programak: ikaskuntza esperientziala, proiektu errealean inguruan ardatz-tutakoa eta modu estrategikoan (auto)erregulatua. Horretarako hiru eredu metodologiko bateratzen dira: trebakuntza («eginez ikasi»), proiektugintza (proiektuetan ardatz-tutako ikasbidea) eta SCRUM metodologia.

**Trebakuntza («eginez ikasi»):** Ikasketa-prozesuak eraginkorragoak dira norberarentzat esangarriak diren zeregin edo atazekin lotuta egiten badira. Horrek laguntzen du zentzu betea ematen ikaskuntza-helburuei, eta testuinguru egokia eskaintzen die, halaber, ikasiko diren

kontu berriei. AITZINATU programan hizkuntza-ezagutzak sustatu nahi dira, irakaskuntzako eta ikerkuntzako zeregin profesionaleri lotuta. Horregatik, «trebakuntzaren» ereduaren alde egiten da AITZINATU programan, «Irakaskuntza» tradizioaletik aldentuta.

Trebakuntzak parte-hartzaileen benetako premiak ditu abiapuntu eta langai. Eta premia horiek identifikatzeko, ikaskuntza aktibo eta esperientziala sustatzen du; alegia, zeregin errealean oinarritutako prozesua.

Alabaina, «eginez ikastea» ez da automatikoki gertatzen kasu gehienetan. Ikaskuntza gerta dadin, estimulu ezberdinak eman behar zaizkie parte-hartzaileei eta, horrez gain, behalako esku-hartze pedagogikoa egin behar da, betiere, sortzen diren beharren arabera.



Horri guztiari deritzogu «trebakuntza», alegia, erabiltzailea prozesu aktiboen bidez «ikastea» ahalbidetzen duen esku-hartzea; bestela esanda, erabiltzailearen premia objektibo eta subjektiboak aintzat hartu, eta erabiltzailearen autonomia sustatzen duen lagundutako ikaskuntza-prozesua.

Dena den, trebakuntzak benetako arrastoa utz dezan, ezinbesteko da egiten den esku-hartze pedagogikoa erabiltzaileen benetako premia komunikatibo eta linguistikoei estuki lotuta egotea. Hori bermatzeko, proiektuetan ardaztutako ikaskuntza baliatzen da AITZINATU programan: proiektugintza.

**Proiektugintza:** AITZINATU programak parte-hartzaileek garatuko duten proiektu bat izango du sorburu, bitarteko eta jomuga: gelako materialak sortzea edo orraztea, ikasleentzako eskuliburu bat egitea, ikus-entzunezko baliabide didaktikoak ekoiztea... Proiektu bat planifikazio bat da, elkarlotuta eta koordinatuta dauden neurri edo ekintza sorta bat. Ezaugarri hauek ditu:

1. Hasiera eta bukaera ditu.
2. Emaiza bakarra ematen du, eta tartean tarteko emaitzak egon daitezke.
3. Baliabide eta epe mugatuak ditu.
4. Kideen parte-hartzea bultzatzen du.
5. Lankideen inplikazioan eta motibazioan eragin onuragarria du.
6. Zeharkakotasuna indartzen du.

Hori horrela, AITZINATU programan parte hartzen duten kideek hautatutako proiektua izango da ikaskuntza-prozesuari zentzu betea emango diona. Izan ere, proiektuari aurre eginez sortzen diren premia linguistiko eta komunikatiboak izango dira, hain zuzen, ikaskuntza-prozesuaren langai nagusi.



Premia horietako batzuk indibidualak izango dira; alegia, parte-hartzaile jakin batzuentzat bakarrik esangarriak. Baina beste batzuk lotuta egongo dira guztien artean eraikitzen ari diren diskurtsoarekin lotutakoak, eta horien gainean lan eginez, euskara garapen-bidean dagoen alorretan bereziki, diskurtso-eredu erkide eta bateratua eraikitzeke mekanismo sozialak aktibatuko dira proiektugintzari esker.

**SCRUM metodologia:** Proiektugintzak hizkuntza-ezagutzak eta komunikazio-gaitasunak garatzeko marko paregabea eskaintzen du. Alabaina, proiektuak prozesu konplexuak dira, dimentsio eta aldagai asko bateratzen dituztenak. Proiektuaren garapena ikaskuntzarako eraginkorra izan dadin, hainbat parametro doitu eta optimizatu beharko dira. Horretarako SCRUM metodologia erabiliko da. Hauek dira SCRUM metodologiaren xede nagusiak:

- Pertsona bakoitzaren funtzioak ondo definitzea eta bereiztea.
- Pertsonak proiektuan inplikatztea.
- Emaitzak enfokatztea eta zatitzea.

SCRUM metodologiak eskaintzen dituen abantaila nagusiak bost hauek dira:

- Emaitzak edo entregagarriak ikusgarri daude prozesu osoan.
- Lanak eta entregagarriak berriro definitu daitezke beti, proiektuaren etengabeko jarraipenari esker.
- Emaitzak modu eraginkorragoan eskuratzen dira, oztopoak ezabatzen duen norbait dagoelako.
- Pertsonen inplikazioa eta konpromisoa indartzen da funtzio eta rolen bitartez.
- Erantzukizunen banaketa bidezkoa ahalbidetzen du.

Horren guztiaren bidez, norbanakoak eta taldeak egindako ahaleginak optimizatu eta ikaskuntza maximizatzeko aukerak sortzea bilatzen da. Era berean, SCRUM metodologiak lagunduko du bermatzen aurrez helburu gisa hartutako proiektua bururaino eramaten duela lan-taldeak, edota, bururaino ez bada ere, metodologia honek lagunduko du bermatzen hein esangarrian egiten duela aurrera martxan jarritako proiektuak.

## 4 Parte-hartzaileen jarraipena eta banako arreta-zerbitzua

Trebakuntzaren printzipio nagusietako bat da norbanakoen premiei erantzun pertsonalizatua eskaintzea. Horretarako bi baliabide aurreikusten dira: onlineko tutoretzak eta kontsulta-zerbitzua.

**Tutoretzak:** Mintegi bakoitzaren ondoren (mintegia izan eta hamabost egunera) ordu bete inguruko tutoretzak egingo dira online parte hartzaile bakoitzarekin. Programan bost mintegi aurreikusten direnez, bost tutoretza saio izango dira. Tutoretza horietan honakoak landuko dira:

- Mintegian aztertutako gaiak ikasleek egin beharreko jardunean izan duen eragina; hau da, egin dituen aldaketak eta hau egitean sortu zaizkion zalantzak eta.
- Online kontsultetan sortutako zalantzak argitzea.
- Parte-hartzaileek egindako autoebaluazioa: ikasitakoa, ikasi beharrekoa eta aurrera begirakoak.

**Zalantzak argitzeko zerbitzua:** Programak irauten duen denbora tarte osoan orotariko zalantzak argitzeko onlineko zerbitzua eskainiko da. Trebatzaileek ahalik eta azkarren erantzungo diete kontsultei, ahal den guztietan 24 orduko epemugaren barruan. Jasotako galde-erantzun guztiak txosten batean jasoko dira zikloen amaieran, eta parte-hartzaile guztiekin partekatuko dira.

Prozesu guztiak kudeatzeko (mintegiak, tutoretzak eta kontsulta-zerbitzua) onlineko plataforma bat erabiliko da. Zer aurkituko dute parte-hartzaileek plataforman?:

- Adostutako proiektuari buruzko xehetasunak.
- Mintegietan erabiliko diren materialak: lan-koadernoak, azalpenak, ariketak...
- Kontsulta-material osagarriak: ikus-entzunezkoak, dokumentu idatziak, Interneko baliabideetarako sarbideak eta loturak, eta abar.
- Lan-taldeko kideek egindako ekarpenen laginak, ezagutza eta aurrerabideak partekatzea ahalbidetuko dutenak.
- Zalantzak argitzeko foroa, ezagutzak partekatu, zalantzak plazaratu eta beste taldekideei ekarpenak egiteko pentsatua.

## 5 Programaren modalitateak eta ibilbideak


AITZINATU programak hiru ibilbide aurreikusten ditu, parte-hartzaileek garatu nahi duten proiektuaren nolakotasunaren arabera:

- **AITZINATU-1:** ikasgelako materialak orraztu eta eguneratu nahi dituzten irakasle-taldeei zuzendua.
- **AITZINATU-2:** ikasleentzako eskuliburu bat modu kooperatiboan garatu nahi duten irakasle-taldeei zuzendua.
- **AITZINATU-3:** ikus-entzunezko pedagogikoak garatu nahi dituzten irakasle-taldeei zuzendua.

Jarraian eskaintzen dira hiru programen ibilbideen zertzelada nagusiak, eta, kasu bakoitzean, aurrez aurreko mintegietan garatuko diren langaiak.

**AITZINATU 1**


Ikasgelako materialak orraztu eta eguneratzeko programa



| MINTEGIA | EDUKIAR  |
|----------|--|
| 1        | <b>On-line baliabideak</b><br>Bideo tutorialak ikusi (Elhuyar, Euskalterm, Euskalbar) eta beharrezko instalazioak egin.<br>Aplikazio-ariketak.   |
| 2        | <b>Zuzentasun gramatikala eta egokitasun ortotipografikoa</b><br>Zuzenketak eskatzen dituzten testuak aztertu, eta hobetzeko irizpideak finkatu.<br>Irizpide horiek ikasgelako material errealetan aplikatu.   |
| 3        | <b>Zehaztasun lexikoa eta terminologia</b><br>Irakasgaiaren erabiltzen diren termino nagusien zerrenda egin eta balioetsi.<br>Zalantzak identifikatu eta argitzen saiatu.  |
| 4        | <b>Ikasgelako material (apunteak, pptak...) argiak egiteko irizpideak</b><br>Dokumentuak egituratzeko, editatzeko eta idazteko irizpideak finkatu.<br>Testu-unitateen koherentzia eta kohesioa bermatzeko hizkuntza-irizpideak landu.                          |
| 5        | <b>Idatzitik ahozkoa: ahozko diskurtsoaren idatzizko euskarriak prestatzeko zenbait orientabide</b><br>Ahozkotasanak dituen bereizgarriei erreparatu eta zenbait jarraibide finkatu.<br>Ahozko diskurtsoaren euskarri izango diren dokumentu idatziak moldatu. |

## AITZINATU 2


Ikasmaterialen deialdirako edota argitalpen zientifikoetarako testuak sortzeko programa.



| MINTEGIA | EDUKIAK  |
|----------|--|
| 1        | <b>On-line baliabideak</b><br>Bideo tutorialak ikusi (Elhuyar, Euskalterm, Euskalbar) eta beharrezko instalazioak ikusi.<br>Aplikazio-ariketak egin.   |
| 2        | <b>Zuzentasun gramatikala eta egokitasun ortotipografikoa</b><br>Zuzenketak eskatzen dituzten testuak aztertu, eta hobetzeko irizpideak finkatu.<br>Irizpide horiek material errealean aplikatu. |
| 3        | <b>Zehaztasun lexikoa eta terminologia</b><br>Irakasgaian erabiltzen diren termino nagusien zerrenda egin eta balioetsi.<br>Zalantzak identifikatu eta argitzen saiatu.                          |
| 4        | <b>Puntuazioa eta diskurtso markatzaileak</b><br>Puntuazio-markak erabiltzeko irizpideak eta ariketa praktikoak<br>Puntuazio-markak erabiltzeko irizpideak material errealean aplikatu.          |
| 5        | <b>Esaldien antolamendurako estilo-irizpideak</b><br>Esaldiak modu argian antolatzeko irizpideak aztertu.<br>Landutakoa material errealean aplikatu.   |

**AITZINATU 3**

Ikus-entzunezko materiala sortzeko programa



| MINTEGIA | EDUKIAK  |
|----------|--|
| 1        | <p><b>Ahozko jarduna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ahozko jardunaren inguruko hausnarketa: Arrakastarako gakoak.</li> </ul> <p><b>Ahozko azalpenak prestatzeko urratsak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Informazio egokia bilatu eta aukeratu.</li> <li>Gidoiak sortu.</li> <li>Ikus-entzunezko euskarriak (Power Pointak, organigramak, posterrak...) sortu.</li> </ul>     |
| 2        | <p><b>Ahozko azalpenen egitura eta ordena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Sarrera eta amaiera.</li> <li>Koherentzia eta kohesioa: lokailuak, testuantolatzaileak, leku-denbora baliabideak. Aurreko eta ondorengo informazioaren arteko loturak.</li> <li>Zehaztasun-baliabideak.</li> </ul>  |
| 3        | <p><b>Kalitatezko jarduna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Zuzentasuna (gramatikal, ortografiko eta lexikoa).</li> <li>Jatortasuna (ahozko ohiko akatsak, erdarakadak, makuluak...).</li> <li>Egokitasuna (zer da gaur egun egoki komunikatzea?)</li> <li>Ahozko jardun eraginkorraren hizkuntza-ezaugarriak.</li> </ul>   |
| 4        | <p><b>Baliabide erretorikoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Galdera erretorikoak, errepikapena, adibidegintza, birformulazioa, anekdotak, analogia, umorea, istorioak kontatzea, emozioak azalartzea, autozuzenketa...</li> <li>Elkarreraginean jarduteko baliabideak.</li> <li>Ainguratzea, parte-hartzeko teknikak, galde-erantzunak, entzute aktiboa, komunikazio asertiboa...</li> </ul> |
| 5        | <p><b>Eszenaratzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ez-hitzezko baliabideak: begirada, gorputza, keinuak, irribarrea, mugimenduak...</li> <li>Baliabide fonikoak: etenak, intonazioa, abiadura...</li> </ul>   |